

# Etorkin helduei ez diegu euskara eman behar?



MALORES ETXEBERRÍA



DOM CAMPISTRON

**U**EMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, *Egin nirekin euskaraz* leloa daraman kanpainan aurkeztu zuen komunikabideen aurrean pasa den hilabetea. Jatorria Euskal Herrian ez duten familiak agertu dira, UEMAKo ordezkariekin batera. Esan dute maiz haur horiengana euskaldunok gaztelaniaz hurbiltzen garela eta horrek mina ematen diela, askok badakitelako euskaraz. UEMAKo lehen-dakaria bi herri euskaldunetako eskola irakasleekin batera agertu da.

Oso egokia eta beharrezkoa iritzia diot kanpainari, askotan jabetu naizelako jokabide horiek bizi-bizirik daudela euskaldunon artean, bai herri euskaldunetan eta, nabarmenago oraindik, erdaldunagoetan, eta haur horiei euskaraz mintzatzeko aukera ukatzen zaie. Baina kanpaina are eta interesgarriagoa iruditu zait, ez delako haurrekiko harremanetara mugatzen baizik eta helduak ere jo-puntuak jartzen dituelako, eta helduekiko gure harremanetan bai nagusitzen dela gaztelania. Haurrek, arazoak arazo (eta handiak dira eskolek dituzten zailtasunak eta baliabide ezak haiek euskalduntzeko) ikasten dute euskaraz, batez ere herri euskaldunetan, eta gozatu handia da

euskaraz tapa-tapa entzutea. Besterik da, ordea, helduekin gertatzen dena.

Gutxienekoak dira gaztaro edo helduaroan Euskal Herrira iritsi eta euskara ikasi duten etorkinak. El Salto-Hordago hedabideak *“El pedregoso camino de las personas migrantes para aprender euskera”* (Euskara ikasteko etorkinen bide traketsa) izeneko artikuluan, hainbat datu eman ditu, Begirune Fundazioak 2023an egindako inkesta batetik ateratakoak. Besteak beste, hauek: inkestatutako pertsona etorkinen %84k esan du ez dakiela batere edo apenas ezer euskaraz; %10ak dio oinarritzko maila bakarrik ezagutzen duela eta %5 da euskara ondo edo nahiko ondo dakiela dioena. Gehien iritzia da ez dela euskararik behar Euskal Herrian bizitzeko, %65ek dio euskara ez dela bere inguruan inoiz erabiltzen.

Pertsona horiek lanera etorri dira gurera, bizi beharrak eraginda, eta gure etxe, taberna, ospitale nahiz beste lantokietan ari dira lanean. El Salto-Hordagok pertsona horietako lauren lekukotasunak jaso ditu eta laurak diote oso aukera gutxi eman zaiela euskara ikasteko. Eta diote, laguntza ekonomikoaz gain, zeina ez dagoen bermatuta oraindik, lanaldia murriztu eta ordu

horietan euskara ikasteko aukera eman beharko litzaiekeela.

Hizkuntza-politika anbiziotsuagoa eta akordio sozio-politiko berria planteatzen diren abagune honetan, praktikan jartzeko neurrietako bat izan behar da, presazkoa, etengabe iristen ari zaizkigun etorkinei gaztelania ez baizik eta euskara ikasteko lehentasuna eta erraztasunak ematea, lanaldi murrizketa eta lanorduen barnean euskara ikasteko aukera barne.

Enplegatzaileok, izan partikularrak (gure etxeetan betidanik euskaraz mintzatu diren adinekoekin euskaraz ez dakiten zainzaileak ditugu nagusiki) edo izan administrazioa nahiz enpresa pribatuak, bitartekoak eta dirua jarri beharra dauzkagu kontratupeko langileek euskara ikas dezaten.

Ardurak partekatua behar du, beraz: euskaldunok euskarari eusten ikasi behar dugu, ados, eta badugu lana, baina euskara duintasunez ikasteko baliabideak ematea enplegatzaile eta administrazioari dagokie. Hirugarren hanka migranteek beraiek osatzen dute. Eskertuko nieke gehiagotan eskatzea euskaldunoi beren aurrean hizkuntzaz ez aldatzeko, asko lagunduko ligukete-eta. ●